

Donostia, 2026ko urtarrilaren 21a

## UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

### PERTSONA MIGRATZAILEEN HARRERAREN GAINEKO KONTROL MOZIOA

Elkarrekin Donostia udaleko talde mistoko zinegotzi Arantza Gonzalez Garciak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, hilaren 15ean Aniztasuneko, Inklusioko eta Ingurumeneko zinegotzi eskuorde Iñigo Garciari pertsona migratzaileen harreraz Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean egindako interpelazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

Donostiako populazio osoaren % 10,6 migratzailea da, eta proportzio hori % 4 handitu da azkeneko hamar urteotan. Sarritan, pertsona horiek pairatzen dituzte zaugarritasun- eta pobrezia-egoera handienak, eta egoera muturrekoena da bizitzeko etxerik ere ez izatea.

Pertsona horietako gehien-gehienentzat ez da erraza Udalak edo beste erakunde edo entitate batzuek eskaintzen dituzten baliabideak erabiltzea, baliabide horiei buruz duten ezjakintasunagatik eta beste arazo batzuegatik, hala nola hizkuntzarengatik. Horrek, aldi berean, handitu egiten ditu zaugarritasun-egoerak.

Bilboko Udalak badu migratzaileei harrera egiteko, informazioa emateko eta orientazioa emateko zerbitzu berezi bat, Harreragune, Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak sortu eta Zehar-Errefuxiatuekin erakundeak kudeatzen duena. Zerbitzu horren helburua da Bilbora iristen diren migratzaileei laguntzea, bai hirian bizitzen hasteko prozesuan, bai eskubideak eta aukerak berdintasun-baldintzetan eskuratzen. Eta migratzaileen trebetasunak, ezagutzak eta esperientzia indartzen dituen ikuspegitik egiten dute, haien bizi-proiektua hirian eraikitzen laguntzeko.

Jakin ahal izan dugunez, Bilbora iristen diren migratzaileak oso pozik daude Harreragune zerbitzuarekin, erantzun pertsonalizatua ematen baitzaie; besteak beste, errolatzeari, atzerritartasun-izapideei,

osasan-txartelari, adingabeen eskolatzeari, hizkuntza ofizialen eta beste hizkuntza batzuen ikaskuntzari edo lan-orientazioari buruzko informazioa. Eta hori guztia leku bakar batean, gainera.

Zinegotzi eskuordeak batzordean emandako informazioaren arabera, bi urte pasa eta gero egin asmo du Eusko Jaurlaritzak Bilboko Harreraguneari buruzko balorazioa, Donostian eta Gasteizen ere haren antzeko zentro batzuk irekitzea aztertzeko.

Era berean, adierazi zuen Migrazioaren eta Asiloaren EAEko Foroak berretsi egin duela Harreraguneren eredu, eta horrek esan nahi du emaitza onak ematen ari dela hura.

Alde horretatik, zinegotzi eskuordeak batzordean jakinarazi zuen, hura ere joan zela zentroaren inauguraziora, zentroaren funtzionamendua ezagutzeko, eta harreman batzuk izan dituela Eusko Jaurlaritzarekin berarekin, 2027an Donostian ere haren antzeko zentro bat izateko aukerak aztertzeko, eta, hala, horretarako moduko lokal bat izateko posibilitateak aztertzen ari dela une honetan udal gobernua.

Halaber, adierazi zuen beste eredu batzuk baino baliabide osoagoa dela hura, eta balio erantsia ekar dezakeela gure hirira iristen diren eta etorkizunean ere ailegatuko diren migratzaileei harrera egiteko eta informazioa eta orientazioa emateko prozesuan.

Hori dela eta, hauxe da gure

#### KONTROL MOZIOA

Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak udal gobernuari eskatzen dio ahalik eta gehien arintzeko Donostiak pertsona migratzaileentzako harrera-zentro integral bat, Bilboko Udalaren Harreragunearen modukoa, ahalik eta azkarren izateko egin behar diren gestioak.

Arantza Gonzalez Garcia,  
*Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia*